

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mungiako Udala**

**Nagore Torre zinegotziari eskumenak ematea merkataritza, ostalaritza eta enplegu-prestakuntza gaietarako (2022/13-Delegfunc espedientea).**

**EBAZPENA**

Batetik, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituan Legearen 21 artikulua eta ondokoak; bestetik, Toki Araubidearen ganeko Lege Xedapenak ezartzen dituan Testu Bateratuaren 24 artikulua; eta azkenik, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa ezartzen dauen Erregelamenduaren 38 d), 53 eta ondoko artikulua eta 120 eta ondokoak, kontuan izanda,

**EBAZTEN DUT:**

1. Nagore Torre Ureta andrea izendatzea ondoko gaietako zinegotzi arduraduna: merkataritza, ostalaritza eta enplegurako prestakuntza, gaietako arduraduna izango denari, ondoko ahlmenak eskuordetzea:

- a) Bere arloko gaiak gidatzea eta kudeatzea, baita hirugarrenei eragiten deuseen ekintza administratiboak ebatzeko ahalmena bere.
- b) Bere arloko gaiak jagokezan ebazpen proposamenak egitea, kasu bakoitzean jakokoa organoak ebatzi daizan.
- c) Sailari jokokozan diru-laguntzak ematea.
- d) Eskuordetuen esku ixtea martiaren 8koa dan Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 118. artikulua kontratazino-organoari (Alkateari) ezartzen deusean betebeharrak; honako honek hain zuzen bere: batetik, kontratu txikietako espedienteak batu behar dauen dokumentazioaren ganekoa, eta bestetik, 118. artikuluari jarraituta espediente horretan jaso beharreko edukien egiaztatena. Betebehar horreetatik aparte, zinegotzi eskuordetu horreek kontratu txikien tramitazio-faseak arautzeko prozesuan zehar beste betebehar batzuk bere euki ahal izango dabez, beti bere, Sektore Publikoko Kontratuen ganekoa dan martiaren 8ko 9/2017 Legeagaz eta Mungiako Udaleko barne-araudiagaz bat etorrita, 5.000 eurotik gorako (BEZ kanpo) kontratu txikietan.

Berraztertze errekurtsoak organo eskuordetza-emoileak ebatziko ditu.

2. Eskuordetze honek Dekretua emon eta hurrengo egunetik gora izango dau eragina; dana dala, BAO argitaratu beharko da, eta udaleko gardentasunaren atalean argitaratu beharko da.

3. Dekretu honen barri emotea Udalbatzari egiten dan lehenengo Osoko Bilkuran.

4. Ebazpen honen barri emotea jakokenei, jakitun egon daitezana eta jakokozan ondorioak izan daizan.

5. Dekretu honen barri Udaleko Sail guztiei emotea.

Mungian, 2022ko irailaren 21ean.— Alkatea, Ager Izagirre Loroño